

AITZINA

Editorea: Fermín Munariz. **Koordinatzailea:** Mariasun Monzón. **Aholkularia:** Iñaki Egaña. **Diseñatzailea:** Juan Luis Napol. **Hebidea:** Rincón de la Aduna, 18 behe. 31001 Iruñea. **Tlfnoa:** 948-21 99 99. **Faxa:** 948-212329. **E-mail:** aitzina@teletelne.es

NORANTZA

AGURTZANE ETXANIZ

DEBEMEN NEKAZARITZA ELKARTEKO GERENTEA

«Baserritarren bizi kalitatea hobetzea dugu helburu»

Nekazaritzaren garapenaren baitan proiektu ezberdinak dinamizatzea eta burutzea xede duen Debemen Nekazaritza Elkarteak «Izarraitz Bizirik» egitasmoa burutzeko asmoa du.

AMAIA MUNDIÑANO

Agurtzane Etxaniz Debemen Nekazaritza Elkarteako gerentea da. Berau sortu zenetik egindako lanen berri eta aurrera begira dituzten asmoak zeintzuk diren azaldu digu honako elkarrizketan.

Noiz sortu zen eta zein helbururekin Debemen Nekazaritza Elkarteak?

Euskal Autonomi Erkidegoan 1985ean onartutako dekretu bat oinarri, nekazaritzaren garapenaren baitan aurkitzen diren hainbat alor aurrera eramateko asmoz, eskualdeka nekazaritza elkarteak sortzen hasi ziren. Debemen, konkretuki, egitasmo zabal horren baitan 1991n sortu zen Deba Behean. Egun, ezaugarri horiek betetzen dituzten hamalau elkarte gara eta bertan eskualdea osatzen duten herrietako udalek, nekazari sindikatuek, nekazari kooperatibek eta sektorean adituak diren profesionalak hartzen dute parte, guztiak helburu bakar bat oinarri, gure eskualdeak behar dituen hainbat gauza lortzea, hain zuzen.

Zertan datza elkarteak burutzen duen lana?

Nekazaritzaren garapenaren arloak ugariak dira eta, ahal du-

gun neurrian, arlo bakoitzean behar dena lortzen saiatzen gara: azpiegiturak (nekazaritza bideak, ur horniketa, saneamenduari dagozkion lanak...), zerbitzu eta ekipamendu ezberdinak sortzea (lokal sozialak, frontoiak...), presakuntza ikastaroak, nekazaritza eta abeltzaintza us-

tiapena bultzatzeko beharrezkoak diren lanak (komertzializazioa, nekazaritza biologikoa, nekazaritza turismoa...) eta abar.

Duela 8 urte «Izarraitz Bizirik» egitasmoa sortu zenuten. Zergatik sortu zen proiektu hori eta zertan datza?

«Izarraitz Bizirik» egitasmoa Debako Lastur eta Mendaroko Killmon bailarak suspertzea helburu duen proiektua da. Sortu zen garaian, Lastur bailaren egoera kaskarra zen eta, suspertzearen beharraz jabeturik, egitasmo hau sortzea erabaki zen. Berpizkundea ikuspegi ekonomiko, soziologiko eta kulturaletik

planteatu zen. Ildo horretatik, bailara hauekiko biztanleen kezka nagusiak kontuan harturik, hainbat ekimen burutu dira denboran zehar, pixkanaka bailara hauek bizi zuten egoera hobetuz.

Zeintzuk dira orain artean egindako lanak?

«Izarraitz Bizirik» egitasmoaren onarpenak hainbat lan burutzeko bidea eman zuen. Horrela, honakoak dira orain artean burutu diren lanak: Lasturreko San Nikolas ermitaren berriztapena, nekazaritza turismoari buruzko informazioa jasotzen duen orria, eskulan denda, estreinatutako berri den Presaola frontoia, egun elkarte gastronomiko eta gune soziala den eskola zaharraren berragokitzapena eta hainbat harrobiren berreskuraztea izan dira, besteak beste, aurrera eramandako lanak.

Eta aurrera begira zer?

Baetik, Gipuzkoako Foru Diputatuaren aginduz, Mendi Nekazaritza Elkartearen oraribideak arretzantzean aldatzea nabariak izango dituela esan beharra dago. Hala ere, gure elkartearen helburu nagusia Deba Beheko baserritarren bizi kalitatea hobetzea izango da. Zentzu horretan, jorratu beharrek helburu nagusietako bat landa garapen proiektuak izango dira: azpiegitura proiektuak gutxitzea, zerbitzuak ugartzea, zuzeneko salmentan indartzea eta abar. Orokorrean, baserritarren errenta osatuko duten ekin-tzak bultzatuz, curen bizi kalitatea hobetzea da helburua, baserritarrek eta naturagunea gure lan lidoetan helburu nagusiak direla kontuan hartuta.



Karlos Coehlla



Txillardegi

Zirtoka

Polglish

Horrela bataiatu omen dute, ingelesez baiturik eta lardaskaturik, Polonian jaiotzen den hizkera berria.

«Franglais» delako sasi frantsesaren bidetik, orain «Polglis-ha».

«Nihil novum sub sole», zioten klasikoei.

Poloniarrek nazkatuta omen daude: «Sex-Shop», «Supermarket», «Music Club»... Dena amerikar modura. Askil!

Eta poloniera poloniar-tu beharra aldarrikatu dute.

Gogorrenek «Johnie Walker» famatua bera... birbataitza proposatu ere bai: «Jasio Wedrowniczek».

Poloniarrek 40 milioi dira; eta poloniera ez dago desagertzeko zorian.

Hala ere poloniarrek beren hizkuntzaren geroaz asalduta daude; eta lege berri bat ateratu du joan den hilean nazio-hizkera sendotzeko. Eta jendearen % 83a paratu omen da alde.

Hemen berriz euskararen geroaz eta kalitatez kezkatzen garenok, «radical» ero mordo bat basterik ez omen gara. Malenkoniatsu koadrila bat. «Los del bucle melancólico». Harrigarria!

Irratiaren alorrean ere kanpoko musikaren kopurua mugatzea erabaki dute: Poloniako irratian heren bat gutxienez poloniar musika izango da.

Hemen, berriz, «zabaldu behar»aren izenean, arazo hau aipatze hutsa ere heretsikeria eta arazakeria nazariaren ondorio garbia omen da.

Nork bere iritzia. Baina Europan bertan hori ere gertatzen da nazio-hizkuntzen alorrean. Eta, nik, ezan egin nahi nuzen.

Aitzindariak

LEONOR TRASTAMARA
1 3 5 0 1 4 7 5



NAFARROAKO GIROA EZIN ERAMANIK, CASTILLARA ITZULI DA XARLES III. OREN EMAZTEAK...

«PORQUE EL AIRE DE LA TIERRA DONDE ERA NATURAL, SEGUND DECIAN LOS FISICOS, LE SERIA PROVECHOSO PARA SU SALUD...»

Eta ERREGINAK MUZIN...

«Despues que yo fui en el Regno de Navarra, non fui acogida nin tratada como debia, e el orden cierta quantia que yo debia aver cada mes, lo que nunca me fue pagado, por lo qual avia de empeñar mis joyas, y los mios lo pasaban muy mal...»

HAN LUZA ETA LUZA ORDEA, ETA ERREGEK MEZULARIK IGORRI DIZKIO...

«lo enviaba rogar que quisiese irse por la Navarra, do, el Rey está, porque él pueda hacer vida con ella.»

NORTEKO SINDROMEAREN LEHEN KASU EZAGUNA OTE?

«E despues fui en el su Regno muy enferma, e segund credo, e me dicen, fueronme dadas yerbas por un Judio su físico, en guisa que ove de morir.»